

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harremana pertsonala eta automatizatua izango da, alde batetik harreman pertsonala izango dugu denda fisikoan, honetan harreman hurbilagoak izango ditugu gure bezeroekin, eta zerbitzu automatizatua izango dugu web orrian, honetan bezeroek erosketan esperientzia hobea izan dezaten saiatuko gara.

Dendan arreta pertsonalizatua emango diogu bezero bakoitzari, erosteko orduan bere gustuekin bat etor dadin eta beharrezko laguntza eman diezaien. Gure web orrian atal bat izango dugu gure helbide elektronikoko kontaktuarekin eta telefono-zenbakiarekin, eta bezeroek gurekin kontaktuan jartzeko aukera izango dute, zalantzarik edo arazorik izanez gero.

Online salmentaren bidez, inkesta bat bidaliko diegu gure bezeroei beren iritzia emateko, gure web orria eta gure produktuak hobetzeko.

